SERVICIO NAVARRO DE EMPLEO NAFAR LANSARE

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK, DEIALDIAN ESKATZEN DIREN BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKOAK

Izen-deiturak: ..... NANa/IFZa: .....

a) DIRULAGUNTZEI BURUZKO FORU LEGEAREN 13. ETA 15. ARTIKULUAK BETETZEARI BURUZKO ADIERAZPENA

1. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluko betebeharrei dagokienez, ADIERAZTEN DUT ez dudala artikulu horretan dirulaguntzaren onuradun izateko ezarri diren debekuetako bakarrik ere (deialdiaren 2.4 oinarria).

2. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 15.2 artikuluarekin bat, ADIERAZTEN DUT behar den gisan emanen dudala aditzera badutela finantzaketa publikoa dirulaguntzaren xedeko diren zeinahi motatako programa, jarduera, inbertsio edo jarduketek. Aditzera emateko modua dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan ezarria dago (deialdiaren 5.3 oinarria).

b) ERDIETSITAKO BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEN AITORPENA

1. **Eskatutako dirulaguntzaren xedeari** dagokionez, zera ADIERAZTEN DUT:

☐ EZ dudala eskuratu estatuko edo nazioarteko beste administrazio publiko batzuen, beste erakunde publiko edo pribatu batzuen edo partikularren dirulaguntzarik.

☐ Eskuratu ditudala, BAI, Espainiako edo atzerriko beste administrazio publiko, erakunde publiko edo pribatu edo partikularren dirulaguntza hauek:

LAGUNTZA	ENTITATE EMAILEA	ESKATUTAKO ZENBATEKOA ETA DATA		EMANDAKO ZENBATEKOA ETA DATA	

2. ***De minimis* araubidearen** mendeko laguntzei dagokienez, Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2381 Erregelamenduak ezartzen du enpresa bakar bati emandako *de minimis* laguntza osoa ezin dela 300.000 eurotik gorakoa izan hiru zerga-ekitaldiko edozein alditan. Aurrekoa aintzat hartuta, hauxe ADIERAZTEN DUT:

☐ EZ dudala jaso estatuko edo nazioarteko administrazio edo erakunde publiko baten *de minimis* laguntzarik zerga-ekitaldi honetan, ez eta aurreko bietan ere.

☐ Aipatutako denboran (3 zerga-ekitaldi), jaso ditudala, BAI, *de minimis* laguntza hauek:

LAGUNTZA	ENTITATE EMAILEA	ESKATUTAKO ZENBATEKOA ETA DATA		EMANDAKO ZENBATEKOA ETA DATA	

Era berean, hitzematen dut Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuari jakinaraziko diodala, eskaera egin eta 15 eguneko epearen barnean, adierazpen honetan zehaztutako dirulaguntzetan izandako edozein aldaketa, langile autonomoen araubide berezian alta eman ondoko 18 hilabeteetan helburu bererako beste laguntzaren bat edo *de minimis* araubideko laguntzaren bat eskatuz gero jarduera honetarako edo beste baterako.

En ....., a .....

(Eskatzailearen sinadura)

(Sinatu eskuz edo ziurtagiri elektronikoarekin. Ez da onartuko sinadurei argazkia egitea edo ebakitzea eta ondoren itsastea)